



Resolución 174/2009, de 18 de febrero, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de las listas definitivas de contratación temporal, en sus modalidades de lista de vacantes y lista de sustituciones, del Grupo Profesional de Diplomados Sanitarios

Mediante el Acuerdo de 29 de mayo de 2008, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud (B.O.P.V. nº 198, de 16 de octubre de 2008), se procede a la adecuación del Acuerdo de 26 de enero de 2004 sobre regulación del sistema de incorporación del personal estatutario temporal en las Organizaciones de Servicios Sanitarios del Ente para la elaboración de las listas de contratación temporal derivadas de la Oferta Pública de Empleo 2006.

Ordenadas las nuevas listas según los criterios regulados en el Acuerdo de 29 de mayo de 2008, por medio de la Resolución 1443/2008, de 19 de noviembre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se publicaron en la página web de Osakidetza las listas provisionales de contratación temporal, en sus modalidades de vacantes y listas de sustituciones, del Grupo Profesional de Diplomados Sanitarios.


Analizadas las reclamaciones efectuadas en relación a dichas listas provisionales,

RESUELVO:

Primero.- Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de las listas definitivas de contratación temporal, en sus modalidades de lista de vacantes y lista de sustituciones, del Grupo Profesional de Diplomados Sanitarios.

Segundo.- Contra esta resolución podrán las personas interesadas interponer un recurso de alzada ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la publicación en la página web de la presente resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2009



**Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**



174/2009 Ebazpena, otsailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko diplomadun sanitarioen lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 19ko 1443/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian diplomadun sanitarioen lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea diplomadun sanitarioen lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtsoa ezartzeko.

Osakidetza
Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 18a



GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**